

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Belaguako Angel Oloron aterpea zaharberritzeko lanak hasi dira

*Herrera kontseilaria partaide izan duen ekitaldiak hasiera eman dio i Nafarroako Gobernuak kofinantzatutako lanei*

Ostirala, 2018.eko abuztuak 31

Gaur goizean egin da Belaguan (Nafarroa) Angel Oloron Aterpea zaharberritzeko lanen lehen harria jartzeko ekitaldia, “Belarouat, Belagua y l'Abérouat, Puertas de Larra eta Anie: una estrategia de valorización del patrimonio natural del Pirineo” deritzon mugaz gaindiko proiektuaren barnean.



NMKEFko lehendakaria lehen harria jartzen, Herrera kontseilaria tarteko dela.

Proiektua Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioak sustatu eta Nafarroako Gobernuak kofinantzatu du, Kultura, Kirol eta Gazteria, Landa-Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioa, eta Garapen Ekonomikoko departamentuen bitartez.

Gaurko ekitaldian, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrerak, Nafarroako Gobernuko marketin turistikoaren zerbitzuko zuzendari Ana Lizarragak, lurralde irunkortasunari buruzko berrikuntza eta ezagutzaren zerbitzuko zuzendari Joaquín del Valle de Lersundik, Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioko (NMKEF) lehendakari Martín Montañése, Iزابako alkate Jesús Baracek eta jarduketaren egilekide Fernando Martinez arkitektoak parte hartu dute.

Nafarroako zein Pirinioetako alpinismoaren historian erreferente bihurtu eta 2004an itxi zen Belaguako aterpea zaharberritzeko lanak dira Belarouat deritzon estrategia honetan bilduta dauden eginkizun nagusietakoa, baina horrez gain, inguruko natura-ondarearen balioztapena ere aurreikusi da Belagua eta Laskungo (Pirinio Atlantikoak) L'Abérouat aterpea lotzen dituzten bidezidorrak egokituz eta homologatuz, L'Abérouateko aterpeko azpiegiturak eta errepidea hobetuz, eta hezkuntza, prestakuntza, kirol eta turismo arloetako mugaz gaindiko jarduerak garatuz.

Laburbilduz, mugaz gaindiko produktu turistikoa sortu nahi da inguruko ibarren ekonomia dinamizatzen laguntzeko, betiere garapen iraunkorraren ikuspegitik eta mendia eta natura-ingurunea ezagutu, zaindu eta babestea bultzatuz.

Proiektuak hiru urteko iraupen izanen du eta Europako Eskualde Garapenerako Funttsaren (FEDER) % 65eko kofinantzaketa lortu du POCTEFA 2014-2020 Programaren bitartez (Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko mugaz gaindiko lankidetzaren programa). Nafarroako Gobernuak Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioak proiektu honetarako bideratu duen aurrekontuaren % 25 finantzatu du, Kultura, Kirol eta Gazteria, Landa-Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioa, eta Garapen Ekonomikoko departamentuen bitartez, horietako bakoitzak 160.821,34 euro gainerako baitizkio proiektuari, guztien artean 482.464 euroko ekarpena eginez.

Eraginkortasunaren izenean, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren, Garapen Ekonomikoko Departamentuaren eta Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren arteko lankidetzaren finkatu da, kudeatzeko agindua deritzon teknikaren bitartez. Honela, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko organo eskumendunak administrazioarekin egin beharreko jardun guztiez arduratuko dira Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioari dirulaguntza esleitu eta ordaintzeko, POCTEFA 2014-2020 Programari atxikitako "Belarouat" proiektuko lanak 2018ko ekitaldian garatzeko aukera izan dezan.

Bestetik, NMKEF, Erronkariko Ibaixako Batzarra, Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio S.L (NICDO), Ligue de L'Enseignement des Pyrénées Atlantiques eta Laskungo Udala kide dituen lantaldea zuzentzeaz arduratuko da.

### **Belaguako Angel Oloron Aterpea Zaharberitzeko Proiektua**

Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioa da jarduketa honen eragile eta sustatzailea, 1971n ireki eta 2004an itxi arte Nafarroako eta Pirinioetako alpinismoaren historiako erreferente bihurtu zen azpiegitura zaharberritu eta berriz ere abian jartzeko asmoz.

Aterpeak, kirolari egindako ekarpenaz gain, garrantzi handia-handia izan zuen mendiko segurtasuna babesteko, datu meteorologikoak eta nibologikoak biltzeko, istripuetako erreskateak eta lehen laguntzak emateko, mendiko errepedeari zerbitzu emateko, heliportu gisa erabiltzeko, etab.

Erronkariko Ibaixako Batzarrarekin batera eta Nafarroako mendi-elkarte guztien sostenguaz lan egin duen Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioaren ekimenari esker, aterpea zaharberritu eta berriz ere abian jartzeko proiektua gauzatu da, Javier Esquisabel eta Fernando Martinez arkitektoek ingurumen-iraunkortasunari nahiz energia-eraginkortasunari buruzko irizpideetan oinarrituta landu duten diseinuaren arabera, mugaz gaindiko proiektuari atxikita.



Ekitaldiko partaideak, aterpearen aurrean.